

An illustration of an elderly woman with short grey hair and glasses, wearing a teal top and a grey patterned cardigan. She is smiling and holding a large, textured brown object, possibly a loaf of bread or a cake. The background is a kitchen with white cabinets, a brown countertop, and a black microwave. A clock on the wall shows the time as approximately 10:10. On the counter, there are red pots on the stove, a white pitcher, and a cup. A woman with long green hair is partially visible on the right side of the frame.

matia

zaleak

MEMORIA 2020

**Ezagutu
gaitzazu**

matia
zaleak

Ezagutu gaitzazu

Nor da MatiaZale?

Matia Fundazioaren xedearekin bat egiten dugunok gara MatiaZale: "adineko pertsonen eta ezgaitasuna dutenen ongizatearen alde, autonomia, duintasuna eta pertsonalizazioa sustatuz".

Zer egiten dugu?

Gipuzkoako gizartearekiko konpromisoa sustatu nahi dugu, adinekoek eta aniztasun funtzionala duten pertsonen bete gabe dituzten beharrei erantzuteko asmoz.

Ildo berean, Matia Fundazioaren laguntza sareko elkarte eta erakundeek eta Gipuzkoako o gizarte osoaren beharrei era erantzuna ematea da gure asmoa. Eta gainera, dugun xedean laguntzen duten pertsona eta elkarten aitortza burutzea.

Zer dakar parte hartzeak?

- Zahartzea eta desgaitasuna agerian jarriz eta horren berri emanez apoiatu eta partehartzea, pertsonen ongizatea eta bizitza hobetzeko helburuarekin.
- Zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko jardueretan parte hartzea eta horien inguruko informazioa jasotzea. Gure lurraldearen hobekuntza sozialean laguntzea, gure gizarte errealitatearen funtsezko esparru batean arituz


Zure ekarpenak zerga onurak eskuratzeko eskubidea ematen dizu

Pertsona fisikoa edo juridikoa izanda, zure ekarpen ekonomikoak zergak arinduko dizkizu hurrengo errenta aitorpenean. Dohaintzaren ziurtagiria bidaliko dizugu horretarako.

Ezagutu gaitzazu



= 953 MatiaZale 2020an



Boluntarioriotza


matia
zaleak

Voluntariado en Matia

Boluntariotza oso balio garrantzitsua da Matia Fundazioan. Boluntario eta elkarte askok era askotara laguntzen dute, beti denbora eta ilusioa emanez.

Pandemiak boluntariotza presentzialarekin jarraitzea eragotzi zuen. Konexio birtualerako aukerak sortu ziren, telefono-deiak, eskuz idatzitako gutunak... Baina urte honetan ezin izan da funtzionatu ezta berresuratu normaltasuna.

Boluntariotzako erakunde guztiek eta pertsona boluntarioek aurkeztutako borondatea eta babesa eskertu nahi dugu.



5378 ordu



1496 pertsona boluntario



63

Laguntza jarraitua edo
aldian behingoa



151

Aisialdi jarduerak
eta irtenaldiak



995

Kultura jarduerak



287

Belaunaldi arteko
proiektuak



160 elkarte kolaboratzaile

Kolaboratzaileak

matia
zaleak

2020ko Kolaboratzaileak

Formakuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



2020ko Kolaboratzaileak

Formakuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



2020ko Kolaboratzaileak

Formakuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



Urteko Ekitaldia

matia
zaleak

Urteko Ekitaldia

Azaroaren 15ean, MATIAZALEAK urteko ekitaldia egin genuen.

Aurten ezin izan genuen topaketa egin, eta online-formatuan egin genuen. Aurreko urteetan bezala, helburu bikoitzarekin: batetik, Matia Fundazioaren diarduten boluntarioei eta elkarteei aitortza egin, eta, bestetik, MatiaZaleaken berrikuntzak kontatzea. 2020ko MatiaZale aitortza Alex Txikoni eman zitzaion.



Ekintzak

matia
zaleak

MIREN MATIAN ipuinaren aurkezpena

Otsailaren 16an, Miren Matian ipuinaren aurkezpena egin genuen, Amonaren ipuina ekimenaren emaitza dena. Prozesuan inplikaturako pertsonekin batera, ipuineko protagonistaren esperientzia birsortzen zuen bisita bat egin genuen.

Ipuina online dago eskuragarri webgunean, deskargatzeko



Kolaborazio akordioak

2020 urtean ere, aurrekoei jarraipena emanez, kolaborazio akordio ezberdinak egin genituen: Zumaiena, Axular, Fundación La Paz Es Posible eta Tecnun.



Kontzertu solidarioak

Jasotako lankidetzeari eta babes-adierazpenei esker, online kontzertuak antolatzen dituzte pandemiaren eta konfinamenduaren hasieran.

ZUZENEKO KONTZERTU ETA
IKUSKIZUN SOLIDARIOAK
ACTUACIONES Y CONCIERTOS
SOLIDARIOS EN DIRECTO

30 ABRIL 19h J	 @matiafundazioa	MARCIN KAWKA
4 MAYO 18h. L	 @grandes_amigos	JULEN ZALDUA
19 MAYO 11:30h. M	 @grandes_amigos	magia CRISTIAN
25 MAYO 11:30h. L	 @matiafundazioa	ALEX, ARAN y HUGO

TANTAKA



MATIA
FUNDAZIOA



GRANDES
AMIGOS


ADINKIDE

Ekimenak

matia
zaleak

Ekimenak

2020an lortutako ekimenak
edo abian jarritakoak:



Lortutako ekimenak

- ✓ Ni ere noa
- ✓ #eskutitzaknagusi
- ✓ Berriro ELKARREKIN
- ✓ Altuerako topaketak
- ✓ Covid garaiko bizipenak, elkarbanatuko ditugu?
- ✓ Postalak nahi ditugu
- ✓ Tanborrada solidarioa



Abian dauden ekimenak

- ✓ #100FLUENCERS
- ✓ Euskalduneatzen
- ✓ Musikarekin edonora



Lortutako ekimenak

matia
zaleak

Ekimena

Ni ere banoa



Emaille kopurua:



enpresa 1 + 2 kolaboratzaile

Ekimena

Ni ere banoa

ork ez du plan batera bat egiten? Interesatzen zaion eta motibatzen duen planera. Bere gustuei erantzuten dien planari, zaletasunak, gauza entretenigarriak, kulturalak, aisialdikoak egin ahal izateko moduan, eta aldi berean, lagunez, berrikuntzez, ibilaldiez, kulturaz gozaten.

Horixe da ekimen berri honen asmoa: gauza esanguratsuak eta normalizatuak egitea, edonork bere agendan programatu ditzakeenak: ba... NI ERE BANOIA!

2020 urtean zehar ezin izan dugu burutu, irteerak antolatzea oso zaila izan delako. 2021ean burutuko dugu.



Kolaboratzaileak:



Ekimena

#eskutitzak nagusi



Partehartzaile kopurua:



200 pertsona

Ekimena

#eskutitzaknagusi

Pandemian abian jarritako ekimena, konfinamenduan zehar, osasun-alertako egoerarekin, ziurgabetasun askorekin eta nahi gabeko egoera berri askorekin.

Adinekoei edo dibertsitate funtzionala duten pertsoneri zuzendutako mezu elektronikoak bidaltzeko eskaera zen ekimen hau: zer esan nahi zenien? Nola animatu? Nola entretenitu egun horietan? Errezetak? Inguruko adinekoek historikoki bizi izan dituzten egoeren balorazioa? Zure ondoan falta den pertsonari zerbait esan nahi diozu? Norbaiti agur esan?

200 e-mail baino gehiago jaso genituen, eta guztiek eskuragarri daude webgunean. Egun haiek nolakoak ziren, egoera nolakoa zen.

MATIA
Zaleak



#EskutitzakNagusi
#CartasMayores

... "Hoy me he despertado, para teletrabajar, entro a las 8:00 de la mañana. El silencio lo inunda todo, es una sensación extraña. A mi alrededor ronda mi gatito "Tiryon" feliz. El mira por la ventana esperando que se cuele una mosca y escuchando a los pájaros que revolotean también felices. Dentro de la sencillez de su vida te dan una gran lección. No hay que esperar un mañana, hay que ser feliz " AQUÍ Y AHORA" con lo que tenemos, con lo que somos, donde nos encontremos, y con quien estemos"...

Envíanos la tuya a

✉ info@matiafundazioa.eus
📷 @matiafundazioa

LEE Y COMPARTE LAS RECIBIDAS

www.matiazalea.eus/es/crowdfunding-social/cartasmayores

Ekimena

Berriro ere, ELKARREKIN



EMAILE KOPURUA:

36 pertsona



LORTUTAKO EMATEAK:

2.234€

Ekimena

Berriro ere, ELKARREKIN

Ekimen honek konfinamenduan zehar konektatzeko gailuak erosten lagundu zuen: bideo-deiak familia eta lagunekin, gure kideekin eta kanpoaldearekin konektatzeko.

Konfinamenduan zehar zerbitzatu gintuzten... baina, egia esan, teknologia geratzeko etorri da, eta gailuek aukera ematen digute oraindik ere jarduerak egiteko, gaitasun teknologikoak eskuratzeko eta beste mundu batera hurbiltzeko...



Kolaboratzailea:



**FUNDACIÓN
GOTEO**

Ekimena

Altuerako topaketak Alex Txikonekin



Kolaboratzaileak:



3 erakunde

Ekimena


Altuerako topaketak Alex Txikonekin

Mendiak, naturak... geure buruarekin lotzen gaitu, eta oroitzapenak eta sentrazioak finkatzen ditu gugan.

Pertsona batzuentzat mendizaletasuna oso esanguratsua da, eta bizi-ibilbidean presentzia berezia izan du. Eta pertsona horiengan, gogoratzean, ikustean, entzutean eta hitz egitean, bizi izandako egoeretara eta esperientzietara eramaten ditu, beren bizitzako oroitzapen onetara.

Pandemia eta konfinamendu betean, Apiriletik, aire garbia arnasteko aukera izan genuen Alexi esker: la Caixatik online topaketa batzuei hasiera emateko aukera eman ziguten, non Matia Fundazioaren hainbat zentrotan bizi diren pertsonak parte hartzen duten, mendiarekin harremana dutenak, bai zaletasunagatik, bai lanbideagatik.

Alex Txikonek astero gidatu gaitu, abentura berrien bidez. Topaketak egiten ditugu online, aurrez elkar ezagutzen ez genuen pertsonak aurkitzen ditugu, eta mendiarekiko eta naturarekiko dugun zaletasuna partekatzen dugu.



Kolaboratzaileak:



Ekimena

Covid garaiko bizipenak, elkarbanatuko ditugu?



Emaille kopurua:

38 emaille



Lortutako emateak:

5.640 €

Ekimena

Covid garaiko bizipenak, elkarbanatuko ditugu?

Ekimen hori 2021ean egingo dugu, eta, horri esker, hausnarketa-taldeak sortu ahal izango ditugu, covid garaian bizi izandako bizipenei buruz adierazi ahal izateko. Adierazpen-kanal bat sortu nahi du, bizitakoa aitortu, eta kultura sortu, kulturaren eta lankidetzaren forma azken emaitza izanez.



Kolaboratzaileak:



Ibon Martin

HIRUZTZA
RODEGA

DiBULiTOON
studio

Ekimena

Postalak nahi ditugu

Ekintzarako deia izan zen, gabonetako postalak jasotzeko eta duela urte batzuk arte hain errotuta zegoen ohitura hori berreskuratzeko.



Ekimena

Tanborrada solidarioa



Partehartzaile kopurua:



82

Ekimena

Tanborrada solidarioa

2020ko urtarrilaren 20an MatiaZaleaken danborrada solidarioa atera zen bigarren urtez. 82 parte-hartzaile, horietatik 9 jantzi solidarioa eraman zuten pertsonak: jaiarekin beren lotura eta historia zuten adineko pertsonak, danborradarekin. Eta horrela, ametsak eta ilusioak bete ahal izan zuten: adibidez, duela urte batzuk irten zen lehen emakumeetako bat izan zen eta 90 urterekin berriz ere parte hartu zuen. Irribarreak, esker ona eta parte hartzeko aukerak, bitzta aktiboa, bitzizak martxan.



Kolaboratzaileak:



Abian dauden ekimenak

matia
zaleak

Ekimena

#100FLUENCERS

Hasiera: 2019/11



Emaila kopurua:



19 pertsona



Aurreikusitako helburua:

47.000€



Lortutako emateak:

6.434 €

Ekimena

#100FLUENCERS

Proiektu hau gu guztiontzat da, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago hobetu dezakegulako.

Kontua da aztertzea nola etiketatzen dugun zahartzea hedabide digitaletan. Nola hitz egiten dugu horretaz? Baina, aldi berean, zer pentsatzen dugu? Bat datoz?

Proiektuak hiru bloke ditu: zahartzeak zer esan nahi duen aztertzeko belaunaldien arteko elkarrizketen ikus-entzunezko bilduma bat; zahartzeari buruz hedabide digitaletan erabiltzen ditugun etiketak aztertzen dituen ikerketa bat; eta adinekoentzako bitarteko digitalen erabilera gaitzeko bloke bat.



Ekimena

Euskalduneatzen

Hasiera: 2019/11



Emaila kopurua:



130 pertsona



Aurreikusitako helburua:

7.200€



Lortutako emateak:

3.993 €

Ekimena

Euskalduneatzen

Euskara gure hizkuntza da, eta aitzakiatzat eta hari nagusitzat jarriz, gure **tradizioetara bidaiatu** nahi dugu.

Ekimen honen bidez hainbat bidaiaria egingo ditugu Lamourous zentrotik. Pentsatu dugu nora joan nahi dugun, eta ideia gehiago bururatzen zaizkigu: Balenciaga, Igartubeiti, Sagardoetxea, Loiolako Santutegia... leku asko, tradizioaren eta kulturaren oinarri.



Ekimena

Musikarekin edonora

Hasiera: 2020/03



EMAILEKOPURUA:



58 pertsona



AURREIKUSITAKO HELBURUA:

7.500€



LORTUTAKO EMATEAK:

3.617 €

Ekimena

Musikarekin edonora

Fraisorok amets bat du, notekin, zentzumenekin, instrumentuekin, bibrazioekin eraikitako amets bat.

Izan ere, musika oso berezia da pertsona batzuentzat, eta gure bizi-ibilbidearen parte da: musikak gogora ekartzen gaitu, irribarre eginarazten digu, sentiarazten gaitu.

Eta programa honen bidez, musika gozatu eta erabili nahi dugu. Baina modu normalizatu, integratzaile eta komunitarioan egitea.

Programa horretan, 12 pertsonak, musikarekin duten lotura eta gozamenagatik identifikatuta, Zizurkilgo musika eskolara (Loatzo) joan ahal izango dute 2021-2022 ikasturte osoan zehar, musika tailerretara.




Emateak

matia
zaleak

2020ko emateak

Guztira emateak= 44.378€



Ezohiko doaintza / legatua=
125.000€

**Beste aukera
batzuk
kolaboratzeko**

matia
zaleak

Opari Solidarioak

Opari solidarioak ditugu salgai, zentroetan eta online dendan. Opari solidarioen onura guztiak ekimenetara bideratzen dira, eta, beraz, adinekoen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen ongizatea hobetzen dute:

totebag



motxila



aterkia



musukoa



opari txartelak



pultsera



Jarri gurekin harremanetan eta kontatu behar duzuna.

Legatu solidarioa

Pentsatu duzu zer gertatuko den zu ez zaudenean? Gizartearekiko duzun elkartasunak eta konpromisoak denboran iraun dezake, eta pertsona askoren etorkizuna hobetu. Ondare solidarioa arrazoi solidarioei ondasun ekonomikoak uzteko aukera ematen dizun aukera da.

Zure testamentuan Matia Fundazioaren aldeko ondare solidario bat sartzeak zure inguruko adineko askoren bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuko du, eta gure arreta-eredua sendotzen jarraitzera zuzenduko dugu, bizitzeki zentzua ematen jarraitzera.



matia
gogoz bizi

matia
zaleak

info@matiazaleak.net

www.matiazaleak.eus



Jarrai gaitzazu